

PARTE-HARTZAILEENTZAKO PRIBATUTASUN-POLITIKA

1 Sarrera

Parte-hartzailearen betebeharra da Politika hau osorik irakurtzea eta ulertzea. Zalantza izanez gero, Parte-hartzaileak egokitzen dituen kontsultak egin ahal izango dizkio Datuak Babesteko Ordezkaritzari, dokumentu honetan harremanetarako adierazitako bitartekoak erabilita.

Joko Kontratuaren xedea betetzeko, SELAEk Parte-hartzailearen Datu Pertsonalak tratatuko ditu, SELAEren jokoetan parte hartzeko kudeaketa operatibo, komertzial, tekniko eta legezkoa egiteko, Plataformaren erabilerari lotutako alderdiekin batera.

Datu Pertsonalak babesteari dagokionean, honako araudi hau identifikatu da, modu ez mugatzailean:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, Datu Pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez (aurrerantzean, “**DBEO**”).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (aurrerantzean, “**DPBEDBEO**”).
- Araudi osagarria, garapeneko edo ordezkoa, aplikatu beharrekoa.

Jarraian, Datu Pertsonen tratamenduari buruzko informazioa agertuko da.

2 Tratamenduaren arduraduna

Aplika daitekeen araudiaren arabera, Parte-hartzailearen Datu Pertsonalen tratamenduaren arduraduna SOCIEDAD ESTATAL LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO, S.M.E., SA da (aurrerantzean, “**SELAE**”). SELAEri buruzko informazioa: IFZ: A-86171964; helbidea: Poeta Joan Maragall kalea 53, 28020 Madril; telefonoa: 900 11 23 13 / 91 596 23 00 (Erabiltzailearen Arretarako Zentroa).

3 Datu Pertsonalen kategoriak eta jatorria

3.1 Parte-hartzaileak emandako datuak

Datuak minimizatzeko printzipioari jarraiki, SELAEk Datu Pertsonal egokiak, bidezkoak eta mugatuak bakarrik eskatuko eta tratatuko ditu, bildu diren helburuei erreparatuta.

3.2 Parte-hartzaileak eman ez dituen datuak

Parte-hartzaileak zuzenean emandako Datuez gain, ondorengo Datu Pertsonalak tratatuko dira:

- IP helbidea eta komunikazio telematikoak ezartzeko eta Parte-hartzailearen gailuaren kokapena kontrolatzeko beharrezkoak diren beste datu batzuk, Interneteko zerbitzuen hornitzaileak emandakoak.
- Ekipoaren azterna digitalaren datuak eta horren jarraipena (hala nola, nabigatzailearen datuak eta antzeko beste teknologia batzuenak).
- Jokoa Antolatzen Zuzendaritza Nagusiak (aurrerantzean, “**JAZN**”) jokoa onartzeko emandako datuak.
- SELAEk edo Plataformaren erabilerak sortutako datuak; esate baterako, ID_Player, berezko saldoei aplikatu dakizkiekeen mugak, Parte-hartzailearen funtsak eta sariak bere kontuan

zuzenean eta oro har sartzeko gutxieneko balioa (Parte-hartzaileak aldatu ez baditu), sariak, sari-ziurtagiriak, geoblokeo-egoera, dokumentu-egiaztapenaren egoera/emaitza, Parte-hartzailearen kategorizazioa, Erabiltzailearen Arretarako Zentroaren (aurrerantzean, “**EAZ**”) eskaeren eta erantzunen erregistroa, EAZrekiko komunikazioetan egindako ahots-grabazioak, kontratuak eta araudiak ez betetzearen ebidentziak eta aztarnak, eskubide-abusua, joko arduratsu/seguruarekin bateraezinak diren jokabideak eta iruzurra, dokumentu-egiaztapenik eza, kapitalak zuritzea prebenitzeko neurrien aplikazioa, etete-egoera, ezerezte-egoera, egoerekin lotutako datak, arrisku-jokabidea detektatuta (Bai/Ez), erosketa intentsiboa detektatuta (Bai/Ez), adin-taldekoa dela detektatuta (Bai/Ez), detektatze-datak, Joko arduratsuetan eskatutako sekzioetan sartzea (Bai/Ez), Bazterketa-aldia, Jarduerarik gabeko denboraldi etengabea, edo aplika daitekeen araudia edo Joko Kontratua betetzeko beharrezkoa den beste edozein.

- Finantza-erakundeen edo ordainbidearen orrialdeek emandako datu ekonomiko-finantzarioak (adibidez, ST birtuala (saltokiko terminala)): identifikatzaile elkartuak (transferentzia-id, token transakzionalak,...), finantza-erakundeen transferentziak, Lotobolsako karga- eta deskarga-mugimenduak,...

SELAEk ezin du sartu ordainbideen berezko datuetara eta ezin ditu horiek biltegitatu; adibidez, Lotobolsako karga-kontuko IBANa edo ordainketa-txartelen zenbakia, titularra edo CVVa.

- Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, epaile eta auzitegiak, administrazioak bezalako eskumeneko agintaritzetatik datozen datuak; esate baterako, bidalitako jakinarazpenen erregistroa, bahimenduak,...

Horrez gain, gailu mugikorretarako aplikazioa erabiliz gero, ondorengo datuak tratatuko dira:

- Aplikazio mugikorrera sartzeko gailuak emandako sarbide-kredentzialak. Parte-hartzaileak bere gailu mugikorreko autentifikazio biometrikoa aktibatzen badu (aurpegia edo aztarna errekonozitzea), haren erabiltzaile-izena eta pasahitza gailuko eremu sekurizatu batean gordeko dira. Aplikazio mugikorrera sartzen den hurrengo aldietan, biometria bidez autentifikatzeko aukera agertuko zaio. Gailu mugikorreko errekonozimendu biometrikoa behar bezala egiten bada, aplikazio mugikorrak gailuan biltegitatutako kredentzialak eskuratu ahal izango ditu, identifikatzeko eta autentifikatzeko.

SELAEk ezin ditu eskuratu edota biltegitatu Parte-hartzaileak bere gailu mugikorrean erabilitako identifikatzaile edo parametro biometrikoak.

- Aplikazioaren funtzionalitate desberdinetarako baimenak; hala nola, gailuaren geolokalizazioa, Espainiako lurraldetik kanpo sartzeko edo erabiltzeko murrizketak bermatzeko beharrezkoa dena; kamera erabiltzea identifikatzeko eta dokumentu bidez egiaztatzeko; edo mikrofona erabiltzea aplikazioaren ahots bidezko kontrolerako.

3.3 Hildako pertsonen datuak

Hildakoen datuak Datu Pertsonalak izan arren, ez ditu DBEOk babesten, eta DPBEDBEOri dagokionean, 3. artikulua-rengatik bakarrik, hildakoarekin lotutako pertsonen (familia edo izatezko arrazoiak medio) edo oinordekoei eskubideak ematen baitizkie. Hala ere, SELAEk Datu Pertsonal guztien antzera babestuko ditu, eta Joko Kontratua amaitzeko beste modu batzuei dagozkien baldintza berberetan ezabatuko dira, dagozkien epeak aplikatuta.

4 Datu Pertsonalak ez ematearen ondorioak

Datu Pertsonal jakin batzuk ematen ez badira, honako ondorio hauek izan daitezke:

- JAZNrekin Erabiltzailearen nortasuna egiaztatzeko nahitaezko Datu Pertsonalak ematen ez

badira, edo erregistratzeko derrigorrezkoak diren datuak, ezingo da erabiltzailea erregistratu, SELAEren jokoetan telematikoki parte hartzeko Plataforman sartzerik ez izateagatik.

- Joko-araudiak emandako legezko betebeharrak betetzen direla bermatzeko ezinbestekoa den informazioa ematen ez bada, SELAEk Joko Kontua eten beharko du, eta orduan ezingo da SELAEren jokoetan parte hartu.
- Era berean, Parte-hartzaileak lotutako salmenta-puntuari buruzko informazioa kentzen badu edo ematen ez badu, ezingo du Loteria Nazionalan parte hartu.
- Telefono-zenbakia ematen ez bada, ezingo da erabili autentifikazio-faktore bikoitza eta jakinarazpenak ezingo dira jaso.
- Dokumentu-egiaztapena behar bezala egiten ez bada, Joko Kontratuan agertzen diren mugak aplikatuko dira.
- Aplika daitekeen araudian edo Joko Kontratuan aurreikusitako beste edozein murrizketa.

5 Helburuak, oinarri legitimatzaileak eta hartzaileak

5.1 Helburuaren deskribapen orokorra

Parte-hartzaileen Datu Pertsonalak SELAEren jokoak eta Joko Kontratuan sartutako lotutako zerbitzuak merkaturatzeko tratatzen dira. Horretarako, Parte-hartzailearen Datu Pertsonalak honela tratatzen dira:

- Kontratuaren aurreko fasean, Erabiltzailea Plataforman inskribatzeko eta alderdien arteko harremana formalizatzeko, eta, ondoren,
- Plataforma erabiltzeko; zertarako? SELAEri jokoak erosteko, dagozkion sarien ordainketa jasotzeko eta eskatutako zerbitzuak jasotzeko, transferentzia ekonomikoak barne; baita ere, Plataformaren kudeaketa operatiboa, teknikoa, komertziala eta legezkoa egiteko.

Helburu horretan sartzen dira kontratua, indarrean den araudia, Parte-hartzaileak eskatutako zerbitzuak eta SELAEren interes legitimoak betetzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak.

Xehetasun gehiagorako, adierazpen gisa baina ez mugatzaile gisa, bildutako Datu Pertsonalak jarraian adierazitako helburu esplizituekin tratatu eta komunikatuko dira, oinarri legitimatzaile nagusiaren arabera sailkatuta.

5.2 Oinarri legitimatzaileak

5.2.1 Kontratu-beharra

Parte-hartzailearen Datu Pertsonalak SELAEk tratatuko ditu kontratu-harremana kudeatzeko, eta, adierazpen gisa baina ez mugatzaile gisa, honako zerbitzu hauek sartuko dira:

- Konexio telematikoa eta online euskarria ezartzea.
- Kontratu-harremaneko altak, bajak eta aldaketak.
- Plataformara sartzea eta erabiltzea.
- Baztertzea edo etetea, aurretik baja eman ondoren, Joko Kontratua azkentzea barne.
- Beharrezko cookie teknikoak eta beste bitarteko baliokide batzuk instalatzea.
- Parte-hartzailearen eta SELAEren arteko laguntza eta harremana: bezeroarentzako laguntza, informazio-eskaera, kexak, iradokizunak, zoriontzeak eta erreklamazioak.
- Joko Kontratua betetzen dela ziurtatzea.

Halaber, SELAeren jokoetan parte hartzeko, ondorengo tratamenduak egin beharko dira:

- Lotobolsaren kudeaketa: kargak, deskargak, mugak borondatez aldatzea,...
- Jokoetan parte-hartzeak hautatzea eta ordaintzea.
- Sariak ordaintzea.

Tratamendu horiek datuen komunikazio sistematikoak egitea eskatuko dute SELAeren eta finantza-erakundeen artean (Bankuak eta kobratzeko/ordaintzeko tresnen kudeatzaileak).

5.2.2 Lege-beharra

Parte-hartzailearen Datu Pertsonalak SELAEk tratatuko ditu, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudia betetzeko, eta, adierazpen gisa baina ez mugatzaile gisa, helburu hauek izango ditu:

- Jokoaren araudia betetzearen gaineko kontrola eta monitorizazioa egitea Jokoaren Kontratua inskribatzean eta mantentzean; esate baterako, identifikatzea, dokumentu-egiaztapena, huts egindako inskripzioen kontrola, une bakoitzean legez ezarritako parte-hartzeari baztertzeko kausak ez aplikatzea edota kirol-apustu irregularrak edo susmagarriak identifikatzea, heriotza detektatzea eta aurrez baja eman eta gero izan daitekeen bazterketa edo etetea.

Helburu hori betetzearekin, Parte-hartzailearen nortasunari buruzko Datuak laga beharko dira, eta hori, jokoaren kontrola eta parte-hartzea egiaztatu beharko dira, Erabiltzailearen Erregistroa eta JAZNerako Joko Kontua barne.

- Autobazterketa kudeatzea, joko-araudiari jarraiki.
- Erabiltzailearen arrisku-portaera potentzialak eta joko-sektorean aplika daitekeen arauditik eratorritako gainerako betebeharrak kudeatzea.
- Erabiltzailearen joko arduratsua bultzatzea, Parte-hartzaileei lege-betebeharra dela-eta bidalitako inkestetan edo beste jarduera batzuetan parte hartzera gonbidatuz.
- Joko Kontua eta Erabiltzaile-erregistroa aztertzeko, taldeetan kategorizatzeko eta, ondoren, kudeatzeko, joko-araudian ezarritakoaren arabera.
- Blokeo geografikoa Erabiltzailearen kokapenaren arabera. Geoblokeo hori partziala (Plataforman inskribatzea, Lotobolsa kargatzea eta partaidetzak erostea) edo osoa (Plataforman sartzea) izan daiteke, Erabiltzailearen kokapena muga hori ezartzen duen herrialde batekoa bada.
- Kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzea. Arrisku-maila kontuan hartuta eta bezero-motaren, Plataformako jardueraren, produktua erostean eta/edo berariazko araudian ezarritako sariak kobratzearen arabera, behar bezalako arretari dagozkion neurriak aktibatuko dira.

Aplika daitekeen araudian aurreikusitako kasuetan, Datu Pertsonalak eta gainerako informazio interesgarria jakinarazi beharko zaizkio Kapitalen Zuritzea eta Arau-hauste Monetarioak Prebenitzeko Batzordearen Zerbitzu Exekutiboari (SEPBLAC).

- Sarien atxikipena egitea eta informazio garrantzitsua jakinaraztea eskumeneko agintariei, zerga-araudia betetzearren.
- Eskumeneko agintaritzen errekerimenduei erantzutea (adibidez, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, epaileak eta auzitegiak, Ministerio Fiskala eta beste administrazio publiko batzuk).
- Kanpoko auditoretza-zerbitzuak, tratamenduaren arduradun gisa jarduten badute; adibidez,

kontu-auditoreak.

Helburu horrek komunikazio ez-sistematikoak eskatzen dizkie kanpoko auditoreei, auditoretzaren irismenaren arabera.

- Parte-hartzailea hiltzen bada, familia-arrazoiak, legezkoak edo izatezkoak medio hildakoarekin lotutako pertsonen eskubideak zaintzea.
- Indarrean den araudi baten betebeharretik eratorritako beste edozein tratamendu.

5.2.3 Adostasuna

SELAEk Datu Pertsonalak tratatuko ditu Parte-hartzaileak eskatutako edo baimendutako zerbitzuak emateko:

- Emaitei, hurrengo zozketei eta beste zerbitzu osagarri batzuei buruzko informazio-komunikazioak bidaltzea.
- Produktu eta zerbitzu berriei buruzko komunikazio komertzialak bidaltzea.
- Legezko betebeharrean oinarritzen ez diren inkestak bidaltzea.

Helburu horietarako, Erabiltzailearekin harremanetan jartzeko datuak erabiliko dira (helbide elektronikoa, telefono mugikorraren zenbakia eta/edo aplikazio mugikorraren bidezko jakinarazpenetarako gailuaren identifikatzailea). Erabiltzaileak bidaltzeko aukeratutako bideak aukera ematen duenean, irakurketaren berrespena eta estatistika-helburuetarako esteketarako sarbidea lortu ahal izango dira, horretarako diseinatutako mekanismo teknikoak erabilia. Bidalketak posta elektronikoz egiten badira, Erabiltzaileak informazio hori lortzea saihestu ahal izango du, posta-kudeatzailea irudiak ez deskargatzeko konfiguratuta eta komunikazioan dauden esteketara ez sartuta.

Halaber, SELAEk Parte-hartzailearen Datu Pertsonalak tratatuko ditu Plataformaren bidez eskatutako edo onartutako beste edozein zerbitzu osagarri emateko; edonola ere, horretarako beharrezkoak diren gutxieneko datuak tratatuko ditu.

5.2.4 Interes legitimoa

SELAEk Plataformaren funtzionaltasunarekin, kalitatearekin eta segurtasunarekin lotutako interes legitimoak asetzeko tratatuko ditu Datu Pertsonalak, eta horren barruan honako hauek sartuko dira, adierazpen gisa baina ez mugatzaile gisa:

- Segurtasun-intzidente potentzialen prebentzioa, detektatzea, geldialdia, analisia eta kudeaketa.

SELAEk tratamendu hori zilegitzat jotzen du DBEOren 49. kontuan hartuzkoan aurreikusitakoaren arabera.

- Datuak banantzeko jarduerak, estatistika-azterketak eta analitika/*big data*.

SELAEk tratamendu hori zilegitzat jotzen du jada eskuragarri dauden datuak erabiltzeagatik, aurrez anonimizatuak edo sasimizatuak, erabiltzaileak berriz identifikatzeko asmorik gabe, azterketarako eta hobekuntzarako barne-helburuetarako erabiliko baititu.

- Barneko edo kanpoko ikuskapenak eta auditoretzak (kanpoko auditoreek tratamenduaren arduradun gisa jarduten ez dutenean).

SELAEk tratamendu hori zilegitzat jotzen du Parte-hartzailearen datuak garrantzitsuak badira ikuskapen eta/edo auditoretzako prozesuetan (adibidez, prozesuaren aurkikuntzen dokumentu-ebidentzia gisa).

- Laguntza bidezko Birkarga-zerbitzuaren kudeaketa; hau da, ordainketa-zerbitzuen

hornitzaileak kode bat (token) ematea SELAEri, Parte-hartzaileak aurkera izan dezan Lotobolsaren karga berriak egiteko erabilitako azken ordainketa-txartelaren gainean, SELAEk txartel horren datuak gorde edo ezagutu gabe.

SELAEk tratamendu hori zilegitzat jotzen du Erabiltzailearentzat erosoia izateagatik, tratamenduaren inguruan arrisku handiagorik ez baitu sortzen. Erabiltzaileak aukera hori kendu ahal izango du Laguntza bidezko Birkarga-zerbitzua erabili nahi ez badu. Era berean, Erabiltzaileak tratamendu horren aurka egiteko eskubidea gauzatu ahal izango du dokumentu honetan deskribatutako bitartekoen bidez.

5.3 Profilatzea eta erabaki automatizatuak

Ez dira aplika daitekeen araudiak eskatzen ez dituen profilak landuko. Ildo horretan, erregistratzeko unean eta kontratu-harremana indarrean den bitartean, ondorengo prozesu automatikoak burutuko dira:

- Erabiltzaileak emandako datuak JAZNekin egiaztatzea, eta, jarraibideen arabera, Erabiltzailearen Erregistroa baztertzea edo onartzea.
- Identifikatzeko dokumentazioa egiaztatzea.
- Jokora Sartzeko Debekuen Erregistro Orokorrean (aurrerantzean, “**JSDEO**”) sartu dela egiaztatzea.
- Jokoaren Operadorearekin lotutako Parte-hartzaileen Erregistroan (aurrerantzean, “**JOLPE**”) sartu dela egiaztatzea.
- Joko Kontratuko edo aplika daitekeen araudiko ez-betetzeak egiaztatzea.
- Joko Kontratuan adierazitako epean erabat aktibo ez dauden erabiltzaileak automatikoki ezabatzea.
- Erabiltzaileen arrisku-portaerak eta aplika daitekeen arauditik eratorritako beste betebeharrak batzuk detektatzea.
- Parte-hartzailea eteteko edo baliogabetzeko arrazoiren batean ez dela aurkitzen egiaztatzea, Joko Kontratuan adierazitakoaren arabera.

Aurrekoaz gain, Joko Kontratua indarrean den bitartean, Plataformaren funtzionaltasun guztiak edo batzuk erabiltzeko ezintasun edo desgaitasun egoera iragankorrak gerta daitezke, honako hauek bezalako egoeretan: log-in saiakera-kopuru handiena gainditu izana, pasahitzak berrogeialdian egotea, pasahitzaren aldaketak abian izatea eta antzeko geldialdiak.

Erabaki horietako batzuekin ados ez badago, Erabiltzaileak horien aurka jotzeko eskubidea erabili ahal izango du dokumentu honetan adierazitako bitartekoak erabilia.

6 Tratamendurako eta kontserbatzeko epeak

SELAEk Parte-hartzaileari jakinarazten dio SELAErekiko harremana indarrean den bitartean tratatuko direla Datuak.

Behin kontratu-harremana amaituta (eta amaiera horren inguruko izapideak amaituta), Parte-hartzailearen Datuak blokeatu egingo dira, eta soilik eskumeneko agintaritzen esku kontserbatuko dira, tratamendutik eta/edo azpiko harreman juridikotik sor daitezkeen erantzukizunak artatzeko, horien preskripzio-epean, legeria zibilaren, merkataritzakoaren, fiskalaren eta administratiboaren arabera eta datuen babesari dagokionean, SELAEren lege-defentsarako.

Joko Kontratuan edo aplika daitekeen araudian aurreikusitakoa kontuan hartuta, SELAEk Parte-hartzailearen Joko Kontua mugatzen, eteten edo baliogabetzen badu, eta, ondoren,

Erabiltzaileak kontratu-harremana amaitzea eskatzen badu, SELAEk muga horiek mantentzea ahalbidetzen duten gutxieneko Datuak kontserbatu ahal izango ditu, Parte-hartzaileak Plataforman berriro alta eman nahi badu ere.

Orientazio gisa, jarraian adierazten dira Parte-hartzailearen Datu Pertsonalen tratamenduari aplikatu dakizkiokeen legezko erantzukizun nagusien preskripzio-epeak:

- 30 urte: Kode Zibilean aurreikusitakoaren arabera, hildako parte-hartzaile baten oinordekoen erreklamazioei dagokienez.
- 15 urte: Zigor Kodearen 31.bis, 33.7.f) eta 131. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.
- 10 urte: Kapital zuritzea prebenitzeko eta informatzaileak babesteko araudietan aurreikusitakoaren arabera.
- 6 urte: Joko-araudian eta Merkataritzako araudian aurreikusitakoaren arabera.
- 5 urte: Kode Zibilean, erantzukizun zibilaren inguruan, aurreikusitakoaren arabera.
- 4 urte: Zerga-araudian aurreikusitakoaren arabera.
- 3 urte: Datuak Babesteko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Aurrekoa alde batera utzi gabe. SELAEk blokeatutako Datuak tratatu ahal izango ditu Parte-hartzaileak Datu Pertsonaletara sartzeko duen eskubideari erantzuteko.

7 Eskubideak gauzatzea

Erabiltzaileak SELAEri eskatu ahal izango dio Datu Pertsonalen inguruan dituen eskubideak gauzatzeko.

SELAEk, tratamenduaren arduradun gisa, datuak babesteko legez ezarritako eskubideak erabili ahal izatea bermatzen die erabiltzaileei, aplikatu daitezkeen araudian deskribatutako moduan. Eskubideak hauek izango dira:

- Sarbidea: Erabiltzaileak bere Datu Pertsonaletara sartu ahal izango du edozein unetan eta SELAEk Datu Pertsonalen inguruan egiten duen tratamenduari buruzko informazioa eskatu ahal izango du.
- Zuzentzea: Erabiltzaileak eskubidea izango du Datu Pertsonalak zuzentzeko eskatzeko, okerrak edo osatugabeak baldin badira. Parte-hartzaileak bere Joko Kontura sartzeko aukera mugatzeko eskubidea erabili badu (autobazterketa), aurrez ezarritako aukeren artean Parte-hartzaileak zehaztutako epe batez, etete hori ezeztatzeko izango da epe horretan, eta ez da informazio hori zuzenduko.
- Ezabatzea: Erabiltzaileak eskatu ahal izango du bere Datu Pertsonalak ezabatzeko edota ez tratatzeko, baldin eta bildu ziren helburuetarako jada beharrezkoak ez badira edo bere baimena kentzen badu, legez kanpo tratatuak izan badira edo legez ezarrita ez dagoen beste modu batean erabili badira.

Parte-hartzailearen Datuak ezingo dira ezabatu edota Erabiltzailearen Erregistroa eta Joko Kontua baliogabetu, Parte-hartzaileak hala eskatuta, apustu aktiboak eta/edo Joko Kontuan saldoa dituen bitartean. Kasu horretan, ezabatzea eskatzen duen Parte-hartzaileak zozketa edo parte hartzen duen ekitaldia egin arte edo legozkiokeen sariak kobratu arte itxaron beharko du, baja eraginkorra izan dadin. Ezabatu aurretik, berriz, Parte-hartzaileak SELAEri eskatu ahal izango dio Joko Kontuan duen saldoa bere titulartasuneko banku-kontu batera deskargatzeko (Espainian jarduteko baimena duen finantza-erakunde batean), edo saldo horri uko egin ahal izango dio berariaz eta modu atzeraezinean. Joko Kontratuan aurreikusitakoa kontuan hartuta, SELAEk ez du saririk ordainduko Parte-hartzaileek

egiaztatu gabeko kontuetan.

- Mugatzea: Erabiltzaileak eskubidea izango du bere Datu Pertsonalen tratamendua mugatzeko eskatzeko, legez horrela ezartzen denean.
- Aurka jotzea: Erabiltzaileak bere Datu Pertsonalen tratamenduaren aurka egin ahal izango du, komunikazio komertzialak bidaltzeko erabiltzen badira edo legez hala ezartzen bada.
- Eramangarritasuna: Erabiltzaileak eskubidea izango du bere Datu Pertsonalak formatu egituratu batean jasotzeko, erabilera komunekoa eta irakurketa mekanikokoa izanik, eta tratamenduaren beste arduradun bati transmititzeko.
- Baimena baliogabetzea: Adostasuna tratamenduaren oinarri juridikoa bada, Parte-hartzaileak edozein unetan kendu ahal izango du emandako baimena. Baimena kentzeak ez du eraginik izango kendu aurreko baimenean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunean. Erabiltzailearen Arretarako Zentroa edo Datuak Babesteko Ordezkaria Parte-hartzailearen eskura geratuko da, Plataforman aldaketak egiteko aukera izateaz gain, dagokion hautaketa-panelaren bidez.
- Erabaki automatizatuak baztertzea eta gizakiak esku hartzeko eskubidea eskatzea, ikuspuntua adieraztea edo erabakiaren aurka egitea, betiere legezko betebeharrak bat betetzeko egin ez bada.
- Indarrean den araudian jasotako beste edozein eskubide.

Erabiltzaileak bere eskubideak gauzatu ahal izateko, bere nortasuna egiaztatzearekin batera, eskaera bat aurkeztu beharko du SELAErekin harremanetan jartzeko bitartekoen bidez. Ondorengo atalean adieraziko dira bitarteko horiek:

8 Erreklamazioak eta Datuak Babesteko eskaerak aurkeztea

Parte-hartzaileak uste badu SELAEk bere Datu Pertsonalak modu desegokian tratatu dituela, dagokion erreklamazioa jarri ahal izango du Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (www.aepd.es).

Era berean, Parte-hartzaileak datuak babesteko eskubideren bat gauzatu, kontsultaren bat egin edo erreklamazio bat jarri nahi badu, Datuak Babesteko SELAEk izendatutako Ordezkariaren (DBO) aurrean egin ahal izango du, honako bitarteko hauek erabilita:

- Posta arrunta: SELAE, Erregistroa, "Datuen Babesa", Poeta Joan Maragall kalea 53, 28020 Madril.
- Helbide elektronikoa: <https://www.loteriasypuestas.es/es/contacto-proteccion-datos>.